# Biokarburanteen planta Zierbenan

Petronorrek biokarburanteen lanta bat martxan jarri nahi du Zierbenan. Oraingoz, Bilboko portua erabiltzeko baimena badu, udaletxearekin negoziazioan ari dira eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari dagokion Ingurumen Baimen Integratua tramitzatzen ari dira.

Proiektua oinarrizko ingeniaritzaren fasean dago eta planta 2010 urtearen bukaerarako martxan egotea espero da eta, horretarako, 60 milioi euro inguru inbertituko dira.

Biokarburanteen plantak erregai ekologikoa (biodiesela) ekoiztuko du landare olioak baliatuz, Petronorrek Europako Batasunaren gas-olioaren inguruko araudi berriak praktikan jartzeko, gas-olioak % 5,83 biodiesel eduki behar duela zehazten dutenak.

Muskiz, 2008ko maiatzaren 29